



Arartekoaren ebazpena, 2011ko ekainaren 22koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailari gomendatzen zaio kontuan har dezan interesdunak diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu zuenean bizikidetza unitate bat osatzen zuela eta prestazio hori lortzeko baldintzak betetzen zituela.

Aurrekariak

1. 2010eko azaroaren 11n (...) andreak Arartekora jo zuen haren esku-hartzea eskatze aldera Gipuzkoako Doru Aldundiko Gizarte Politikako Sailak diru-sarrerak bermatzeko erreta ukatu ziola ikusita.

2010eko irailaren 16ko ebazpenaren arabera, foru sail horretako Prestazio, Gizarteratze eta Enpleguko zuzendari nagusiarena, interesdunak ez zuen bizikidetza unitate bat osatzearen baldintza betetzen, Gizarteratzeko eta Diru sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.a) artikuluan xedatzen den moduan. Justifikazioan azaldutakoari jarraiki, interesdunak prestazioaren eskaeran kide bakarreko bizikidetza unitate bat osatzen zuela adierazi zuen arren, ez zuen lege horren 9.1.a) artikuluan pertsona bakarreko bizikidetza unitateei buruz ezarritakoa betetzen.

(...) andreak aurreko ebazpena gora jo zuen 2010eko urriaren 28an eta Gizarte Politikako Saileko foru diputatuak ebazpena eman zuen, urte horretako azaroaren 15ean, hura ukatuz eta emandako ebazpena baieztatuz.

Ebazpen berri hau 18/2008 Legearen 9.2. artikuluan oinarritzen zen, bizikidetza unitate bereziei buruzkoa. Horietako baten bat pertsona bakarreko bizikidetza unitateak ditu hizpide, hala nola, euren etxebizitza hainbat arrazoiengatik utzi behar izan duten pertsonen kasua. Ebazpenean azaltzen zenez, interesdunaren egoera ez zen legearen 9.2. artikuluan biltzen, ezta 9.1. artikuluan ere.

(...) andrea beste pertsonekin bizi zen, urrutiko senideak zirenak, baina logela alokatzeko kontraturik gabe. Hori dela-eta, aurreko legea garatzen duen Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuko





5.1.c) artikuluan jasotako bizikidetza unitatetzat jotzea ere ukatu egin zen ebazpenean. Beraz, eskatzaileak bizikidetza unitatea bat osatzen zuen harekin bizi zirenekin, araudi horren ondorioetarako senidetzat jo ez arren (laugarren mailara arteko odolkidetasunagatiko senidetasuna, dekretuko 5.1.b) artikulua).

2. Gaia aztertuta, interesdunak eskainitako agiri berriekin batera, erakunde honek ulertu zuen, (...) andrearen kasua ezin zela lehen aipatutako 147/2010 Dekretuko 5. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan jasotako bizikidetza unitate gisa jo. Hala eta guztiz ere, kasua artikulua beraren 3. paragrafoan sar zitekeela uste izan zuen, senideen harrera aipatzen baitu bizikidetza unitate mota gisa. Agindu horrek azaltzen zuenez, premia larriko egoeran egonda beste bizikidetza unitate batek hartu dituzten pertsonak ere bizikidetza unitatea osatuko lukete, betiere berariaz aipatzen diren hainbat baldintza betez gero.

Informazioa espedientean jasota, egoera hori kontuan hartzeko baldintzak betetzen zirela uste izan genuen, aldez aurretik aintzat hartu izan ez zena.

Zentzu horretan, Arartekoak Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Politika Sailera jo zuen 2010eko abenduaren 10ean, dekretu horretako 5.3. artikuluan adierazitako baldintzak zerrendatu zituen eta (...) andreak betetzen zituela bermatu zuen, izan ere: unitate hartzaileak baliabide nahiko zituen beretzat eta ez zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen; unitate horren eta hartutako pertsonaren artean ez zegoen laugarren mailako edo gutxiagoko lotura familiarrik; bi unitateen artean ez zegoen kontraprestazio ekonomikorik. Laugarren baldintzari dagokionez, -*"Premia larriko egoera egiaztatzen duen Erreferentziako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu baten txostena egotea"*- idazkian azaltzen zen ez zela edukia ezagutzen baina, nolana ere, egin zitekeela zirudien, interesdunaren baldintza falta egiaztatu ondoren. Gainera, 147/2010 Dekretuaren 5.1.c) artikuluan -5.3. artikulua hara bidaltzen zaitu- "premia larriko egoera" definitzen duela azaltzen zen.

Idazki horrekin batera interesdunari doako laguntza juridikoa onartzeko bi erabaki erantsi ziren, baliabiderik ez zuenaren adierazle, erabaki horiek diru-sarrerak bermatzeko errentarena ez zen eremu juridikoari erantzuten bazioten ere. Horren guztiaren ondoren, Gizarte Politikako Sailari horren inguruko iritzia eskatu zitzaion.





3. 2011ko martxoaren 1ean foru sail horren erantzuna jaso genuen. Interesdunak diru-sarrerak bermatzeko errenta lortu ezin zuela baieztatzen zen, bizikidetzaren unitate bat eratu beharraren baldintza ez betetzeagatik, arestian aipatutako 18/2008 Legearen eta 147/2010 Dekretuaren babesean. Foru aldundiak ukatu egin zuen kasu honek dekretu horren 5.3. artikuluko bizikidetzaren unitatea eratzen zuenik –erakunde honek ulertu zuen moduan-, izan ere, haren ustez ez zuen bertan ezarritako denbora mugaren baldintza betetzen. Muga hori hamabi hilabetekoa da, eta salbuespenetan beste hamabi hilabete luza daiteke oinarrizko gizarte zerbitzuen aldeko txostena jaso ondoren.

Foru Sail horren ustez hamabi hilabeteko epe hori eragindakoa etxebizitzaren erroldatu zen unean hasi zen, prestazioaren eskaera data baino lehenago. Ildo honi jarraiki zera azaltzen zuen *“Interesatua 2008/11/13an (...) (...) erroldatu zen eta ondorioz, 2010/07/16an Diru sarrerak Bermatzeko Errenta eskatu zuenean , premia larria dela eta bereizitako bizikidetzaren unitate izateari eutsi ahal izateko lehen aipatutako gehieneko hamabi hilabeteko epea beteta zegoen, eta ez da ezohiko kasua dela eta, harrera-egoera ahalbidetu zuten baldintzek jarraitzen dutelako beste hamabi hilabetez luzatzea proposatzen duen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostenik aurkeztu”*

4. Erakunde honetan ez gendozen bat Gizarte Politika Sailak 147/2010 Dekretuko 5.3. artikuluko amaierako testuari emandako interpretazioarekin, denbora zenbatzen hasteko epearekin alegia. Erakunde honen ustez epe hori diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea onartzen zen egunean hasi behar zen zenbatzen. Horren arabera, (...) andrearen kasu zehatzean, epe hori oraindik ez zen zenbatzen hasi, ez baitzioten prestaziorako eskubidea onartu.

Hori zela-eta, Arartekoak berriro ere foru sail horretara jo zuen 2011ko martxoaren 11n, paragrafo horren inguruan foru erakundeak egindako interpretazioari kontra eginez eta paragrafo hori adierazi bezala interpreta zezaten hainbat defentsa-argumentu igorri.





5. Gizarte Politika Sailak, apirilaren 6an jasotako erantzunean azaldu zigunez, kasu hori ez zen 5.3. artikuluko horretan jasotzen, ez baitzituen bi baldintza betetzen: "premia larriko egoera" eta "bitartean kontraprestazio ekonomikorik ez egotea". Erakunde hau ez zettorren bat balorazio horrekin.

6. Dekretu horren 5.3. artikuluko eskatzen duen baldintzetako bat "premia larriko egoera baieztatzen duen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren txostena" izatea denez, eta baldintza hori zenez ezagutzen ez genuen bakarra, zehatz-mehatz ezagutu nahi izan genuen txosten horren edukia. Horrela (...) andreak 5.3. artikuluko horretan ezarritako baldintza guztien betetze maila baloratu eta erabaki ahalko genuke eta, ondorioz, artikuluko horren babesean bizikidetzaren unitatetzat jotzeko aukera.

Horretarako Arartekoak (...) Udalera jo zuen 2011ko maiatzaren 5ean, haren mende baitago kasu honetan Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Idazkian (...) andreaken egoeraren inguruko zerbitzu horren iritzia ezagutu nahi genuela adierazi genuen dekretuaren 5.1.c) artikuluko egiten duen definizioaren arabera usteko "premia larriko egoera" zela-eta.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzu horrek adierazi zigunez, (...) andreak, laguntza eskatu zuen unean, 5.1.c) artikuluko horretan "premia larriko egoeratzat" jotzeko aipatzen den baliabide falta betetzen zuen. Egoera hori harez geroztik mantendu egin zela gaineratu zen. Egun hartan -2010eko uztailean- gizarte txostena eman ez zela onartu zen, dekretuaren 5.1.b) artikuluko bizikidetzaren unitatetzat jo baitzuten, interesdunaren eta unitate hartzailearen artean laugarren mailatik beherako senidetasun harremana zegoela ulertuta. Interesdunak lehengusinekin bizi zela azaldu zuen, baina urrutiko lehengusinak zirela argitu zuen (laugarren mailatik gorako senidetasuna). Alberdi hori argituta, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dekretuko 5.3. artikuluko aipatzen duen gizarte txostena eman zuen, 2011ko ekainaren 1ean. Txosten horretan azaldutakoaren arabera, laguntza eskatu zenetik interesduna premia larriko egoeran dago eta bizikidetzaren unitate berezitzat jotzen da. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak txosten hori foru aldundiari bidali zion eta guri kopia bat erantsi zigun.

Aurreko guztiaren ondoren, honako gogoetak egin ditugu.





Gogoetak

1. Diru-sarrerak bermatzeko erretan laguntza moduko prestazio ekonomikoa da, autonomia erkidego honetakoa. Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak arautzen dute. Diru-sarrerak bermatzeko errenta honako pertsona hauei zuzenduta dagoen prestazioa da: oinarrizko beharrei lotutako gastuei zein gizarteratze prozesu baten ondoriozko gastuei aurre egiteko diru nahikorik ez daukaten eta bizikidetzaren unitate baten barruan dauden pertsonak (legearen 1. artikulua eta dekretuaren 2. artikulua).

Prestazio hori jasotzeko eskubidearen titulartasuna lortzeko zenbait baldintza bete behar dira (legearen 16. artikuluan eta Dekretuaren 9.ean aipatuak), besteak beste, bizikidetzaren unitatea ezarritako baldintzetan eratzea. Kontzeptu hori legearen 9. artikuluan biltzen da eta dekretuaren 5. artikuluan garatzen da. Azken horrek hainbat bizikidetzaren unitate mota zehazten ditu eta, 3. paragrafoak, hitzez hitz, zera adierazten du:

“Era berean, bizikidetzaren unitate bat eratuko dute, beren premia larria dela medio, halakotzat hartuz artikuluan honen 1. paragrafoko c) idatz-zatian adierazitakoa, artikuluan honen 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako bizikidetzaren unitateren batek hartu dituen pertsonak, betiere:

- *Harrerako unitateak nahiko baliabideak baditu bere oinarrizko gastuei aurre egiteko; ondorio horietarako ezingo dute Diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso;*
- *Hartutako pertsonak harrerako unitateko pertsonekin ez badute 1. paragrafoko b) idatz-zatian bildutako loturaren bat: ezkontza edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman iraunkorren bat, adopzioa, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkonahaidetasuna, familiako harrera iraunkorra edo adopzio aurrekoa edo tutoretzapekoa;*





- *Unitate hartzailearen eta hartu dituzten pertsonen artean diru bidezko traturik ez dagoenean;*
- *Premia larriko egoera egiaztatzen duen erreferentziarako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu baten txostena dagoenean.*

Kasu horietan, harrerako bizikidetzaren unitateak bereizitako bizikidetzaren unitate izaerari gehienez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da, harrera-egoera ahalbidetu, zuten baldintzek jarraitzen badute, alde aurretik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostena egin ondoren”

Paragrafo honek hizpide dituen bizikidetzaren unitateak (“artikulu honetako 1. paragrafoko a) eta b) ataletan ezarritakoak) honakoak dira:

- a) “Etxebizitza edo bizitoki batean bakarrik bizi diren pertsonak, eta talde horretatik kanpo geratuko dira, bakarrik bizi izanda ere, beste pertsona batzuekin ezkontza bidez edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman iraunkorren baten bidez lotuta daudenak”. Hainbat egoera salbuesten dira: Banantze edo dibortzio izapideak egiten ari direnean; etxeko biolentzia pairatu duten biktimak direnean; pertsona errefuxiatuak direnean; etorkinak direnean eta euren bikoteak estatuko lurraldean bizi ez denean, betiere aldeko gizarte txostena egonez gero.*
- b) “Etxebizitza edo bizitoki berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batuta daudenean, edo laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunagatik edo bigarren mailarainoko ezkonahaidetasunagatik, edo familia-harrerako harreman iraunkor batengatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman batengatik batuta daudenean”.*

Bestalde, “premia larriko egoera” 5. artikuluko horren 1. paragrafoan azalduta dago, honelaxe:

“Premia larriko egoera dagoela ulertuko da prestazioa eskatzen duen pertsonaren diru-sarrera konputagarriak inolako baliabiderik ez duen





pertsona bakar bati legokiokeen Gizarteratzeko eta Gizarte Babeserako Oinarrizko Errentaren % 75aren azpitik daudenean, edo erreferentziako oinarrizko gizarte-zerbitzuaren ustez premia larriko egoeran dagoenean.”

2. (...) andrea (...) dago erroldatuta 2008ko azaroaren 13az geroztik urrutiko senide batzuen etxean, beraz, hizpide dugun araudia oinarritzat hartuta ez dira senidetzat jotzen, arestian aipatutako dekretuaren 5.1.b) artikulua araberera.

Foru erakundeak ez du zalantzan jarri diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso ahal izateko dekretuaren 9. artikuluan ezarritako baldintzarik bizikidetza unitatea eratzeari dagokiona izan ezik, artikulua horren 1. paragrafoan jasota dagoena.

Dekretuak hainbat bizikidetza unitate biltzen ditu 5. artikuluan. (...) andreak ez ditu betetzen artikulua horretako 1. eta 2. paragrafoetan jasotako baldintzak, bizikidetza unitate bat osatzeko. Hala eta guztiz ere, erakunde honen ustez, dekretuko 5. artikuluko 3. paragrafoan jasotako baldintzak betetzen ditu, eta horrelaxe jakinarazi genion aldundiari 2010eko abenduaren 10ean.

3. Hori guztia Gizarte Politika Sailari bidalita, eragindakoak 5.3. artikulua horretan ezarritako baldintzak betetzen ote dituen zalantzan jarri du; zehazki honako hauek izan dira:

- a) unitate hartzailea eta hartutako pertsonen arteko kontraprestazio ekonomikorik ez egotea,
- b) horri dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuaren txostena egotea, premia larriko egoera bermatze aldera, eta
- c) hamabi hilabeteko tartea zenbatzen hasi zen eguna, 3. paragrafoaren amaieran azaltzen dena.

a) Lehenengoari dagokionez, interesdunak baieztatu du haien arteko inolako kontraprestazio ekonomikorik ez dagoela eta foru administrazioak -hari dagokio frogaren zama- ez du inolako frogarik aurkeztu eragindakoaren bertsioa ezeztatzeko. Beraz, baldintza betetzen duela ulertu behar dugu.

b) Bigarrenari dagokionez, egiaztatu beharra dago eragindakoak, dekretuko 5.1.c) artikulua araberera, “premia larriko egoeraren” definizioak aipatzen





dituen bi baldintzetakoren bat betetzen ote duen. Baldintza horiek honakoak dira: baliabiderik gabeko pertsona bakar bati egokitu liezaiokeen prestazioaren zenbatekoaren % 75 baino gutxiagoko sarrera maila izatea (2010. urtean ehuneko hori hileko 487,64 eurokoa zen) edo oinarrizko gizarte zerbitzuak halako egoera bermatzea.

Hizpide dugun kasuan, interesdunak bere baliabide guztiak bermatu zituen, ohikoa den moduan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan laguntza eskatzerakoan, 2010eko uztailaren 16an, beraz, zerbitzu horrek haren egoera ekonomikoa ezagutzen zuen, baliabiderik gabekoa. Bestalde, interesdunaren eta hartzaileen arteko senidetasun harremanik ez zegoela argitu ondoren, zerbitzu horrek gizarte txostena eman behar izan zuen, baina 2011ko ekainaren 1ean eman zuen. Txosten horretan interesduna laguntza eskatu zuenean eta gaur egun arte premia egoeran egon dela agertzen da.

Txosten horrek, besteak beste, zera adierazten du: *“En el mes de julio de 2010, (la interesada) solicita Renta de Garantía de Ingresos al no disponer de recursos económicos suficientes (...). Desde entonces no dispone de ingreso alguno y depende económicamente de las personas con las que convive”*. Era berean, (...) andreaken premia larriko egoeraren berri ematen du, dekretuko 5.3. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituela azaltzen du eta honakoa ematen dela adierazten du *“informe favorable para que se contemple a (...) como una unidad de convivencia especial de extrema necesidad”*.

Foru sailak ez du inoiz ere zalantzan jarri familia loturarik ez egotearen baldintza betetzen denik. Halaber, ez du adierazi gizarte txostenaren beharrik (...) andrea dekretuko 5.3. artikuluan barneratuta zegoela uste ahal izateko eta ez du eskatu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari adierazteko aukera. Nolanahi ere, erakunde honek Gizarte Politika Sailari 2010eko abenduaren 10ean bidalitako idazkian zera adierazi zion: *“(...)(...) andreak ez dauka baliabiderik eta (...) bizi da urrutiko senide batzuen etxean, haren premia-egoera kontuan hartuta etxean hartu baitute. Interesdunak senide horiei lehengusina izenaz deitzen badie ere, hark azaldutakoarekin bat, aitonaren lehengusu baten alabak dira. Hori zazpigarren mailako ahaidetasuna da (arauak bizikidetasun unitatea eratzeko hizpide duen laugarren maila argi eta garbi gainditzen du), hortaz, horiek guztiek ez dute bizikidetasun unitate bakarria eratzen.”*





Horri guztiari jarraiki, (...) andreak, eskaera egin zuen unean, dekretuko 5.3. artikuluan jasotako baldintza guztiak betetzen zituen bizikidetza unitatetzat jotzeko eta beraz, dekretuko 9. artikuluko baldintzak betetzen zituen diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea izateko.

c) Hamabi hilabeteko epea zenbatzen hasteko egunari dagokionez, erakunde honek uste du data hori prestazioa jasotzeko eskubidea duenean zehaztu behar da.

Gure ustez, legegileak nolabaiteko behin-behinekotasuna eman nahi izan dio laguntza jasotzeko eskubideari famili harrera egoera batean, denbora muga bat ezarri. Epe hori premia egoera mantentzen bada bakarrik luzatu ahalko da. Badakigu arauaren bidez halako egoeran egoteagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea nahi baino gehiago luzatzea ekidin nahi dutela, eragindakoak lan eta gizarte mailako egoera arruntagoa lortzeko bidea oztopatuko bailuke. Gainera, bi urteko gehienezko epe hori –jasotzeko epetzat jotzen duguna– dekretuak (38.1 artikulua) diru-sarrerak bermatzeko errenta emateko ohiko epetzat jotzen duena da.

Ez dauka zentzurik epe hori bizikidetza hasten denean zenbatzen hastea, data hori laguntza eskatu aurrekoa bada, hainbat arrazoi direla-eta:

- bizikidetza ez du zertan hasi premia larriko egoerarekin batera.
- egoera hori gertatzen denean -eta ez lehenago- administrazioak hala kalifikatzen du eta onartzen du eragindakoa harrera egoeran dagoela eta bizikidetza unitatea osatzen duela, dekretuaren 5.3. artikuluan adierazitako baldintzetan.
- une honetan ere -eta ez lehenago- gizarte zerbitzuek esku hartzen dute. Beraz, une hori izango da zerbitzu horiek erreferentzia gisa hartuko dutena egoera luzatzeko aukera aipatzen dutenean; hau da, harrera egoera eragin zuten baldintzak "*mantentzen*" diren edo ez erabakitzerakoan (dekretuko 5.3. artikuluaaren amaierako testua). Gizarte zerbitzuak ezingo dira mintzatu ezagutu ez zuten eta euren esku-hartzetik kanpo egon zen egoera baten inguruan.





- gainera, laguntza eskatu aurretik bizikidetzako bi urte baino gehiago igaro izan balira, eskaera hori ezingo zen kontuan hartu, eskatzailea egoera ekonomiko zailean egon arren. Kasu horretan -foru irizpidea jarraiki- behar egoeran egongo litzatekeen eragindakoa babesik gabe geratuko litzateke.

Oinarrizko beharrei erantzuteko prestazio baterako eskubideari buruzko arau baten interpretazio murriztaileak oinarri oso sendoa izan behar du. Kasu honetan, Gipuzkoako Gizarte Politika Sailak halako interpretazioa egin du, gure ustez, arrazoirik gabe.

Azkenik, gaineratu beharko genuke, bai Araban bai Bizkaian, alor hori erakunde honek ulertzen duen modu berean interpretatzen eta aplikatzen dela. Gipuzkoako Aldundiak egiten duen interpretazioa, murriztailea izateaz gain, Autonomia Erkidego honetako herritarren arteko tratu bereizlea eragiten du.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, ondokoa egiten dugu:

20/2011 GOMENDIOA, ekainaren 22koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailari egindakoa

- Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.3. artikulua amaierako testuan azaltzen den hamabi hilabeteko epea diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea lortzen duenean zenbatzen has dadin.
- (...) andreak, eskaera egin zuenean, 147/2010 Dekretuko 5.3. artikulua bizikidetzaren unitatez jotzeko eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen zituela kontuan har dezan.
- Andre horrek, une hartan, dekretu horretako 9. artikuluan diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea izateko beharrezkotzat jotzen diren baldintza guztiak betetzen zituela uler dezan.
- Aurrekoari jarraiki, diru-sarrerak bermatzeko errenta gaitzesten dion 2010eko azaroaren 15eko ebazpena baliogabetu dezan eta (...) andreak 2010eko uztailaren 17tik aurrera prestazio hori jasotzeko eskubidea





duela onartzen duen ebazpen berri bat eman dezan (147/2010 Dekretuko 36. artikulua).

